

Urte barri bizi barri

Urte barri, bizi barri?

Sinistu kredoa!

Ala esaten dakie arrantzale zarrak.

Atzo, Urtezar, Martzeliño prakazar ba zan, nundik goizetik gaberabizi barri baten jaube?

Ikasle makalen kontua da ori. Ikastekoak... luzatu, itxi beti gero-rako, gero denpora egongo dalakoan. Azterketarako illabete falta ta eutsi oraindik be, gero egingo diralakoan. Gero astea falta... ta azkenean kalabazak artzera igarri barrik norbere burua gertu, artara egin eta oitu.

Urte barriak gauza bat dakar barririk ziurtatu leikena:

Urte barri-barri

—txarri belarri—

dau kanak eztaukanari emon bear sarri.

Emon eta emoteko izan daitezala gaiñera. Giroa ez dago edo guk beintzat ez dogu ikusten argi. Lanik ezak ez dauka eten itxurarik. Zela-alako urteerak billatu nai dautsez asierako langilleei. Urteera argalak, onura gitxikoak eta asarrez beteak, oraingo itxuretan beintzat; alaz eta asi edo lanean ekiteak, eurentzako gaurko egoera kezkatu eta itxaropenik bagako onetan, alako argi izpi zerbait ikusten astea litzake.

Baiña eta ogeitamar-berrogei urtetako langilleak, ez lanik ez dirulaguntzarik daukenak, zer? Zein jaubetuko da eurekaz? Zelako esku-



*Eskuak egoki eta
begi biak argi,
gazteeri dagokie
biarra pozgarri.
Ardura zentzunaz lotu
ezaitzen larri,
batera daigun mundu au,
oin eta oiñarri,
aldatu ala berotu,
egin barri-barri.*

bideak artuko dabez biar edo etzi-
rako? Eta nok alikatu eta jantzi eta
lagun arterako zerbait nok emon
bear dautse?

Kontu egin oneitako guraso asko
zar-sarituak dirala, jubilatua dira,
eta eurentzat mirriztuta dauken
zar-sariagaz, zer egin leikie gaur
orrelakoen gurasoak?

Urte barri, bizi barri, onetan iku-
si nai genduke.

Ez al da etorriko magorik, goize-
tik gabea, izarren ondoren etorri
leiken itxaropenik ekarriko daua-
naik?

Trakatan trakatan
iru errege,
trakatan trakatan
Belenera...

Federik ez dala galdu bear, esa-
ten da. Izan be leike fedea izatea az-
ken edo nekezen galtzen dana.

Eta fedeari eutsiaz, oiñetakoak
ipiniko doguz leioan. Baiña, ai aita
ta ama asko euren gogoak beteteko
egokitasunean ba legoz!

Aurten ere serrautsa edo ikatza,
ipini bear, askok beintzat. Ez bo-
rondatez, ezin ipinia dala-ta negar
eginda baiño.

Baiña balio al dau gurasoak
oiñetakoetan ezer ipinteak? Eta gu-
rasoak al dira erregeak?

Gaur ori ez dakienak... areik bai
benetan zoriontsuak!

Eta Herodes? Nun da inbiriaz be-
tetako errege a?

Urte barri, bizi barri?

Ala ba litz! Baiña datorren ur-
tean be gogoeta oneik egingo do-
guz. Eta bizi ba gara urte bete za-
rrago izango gara. Eta ala izango ez
dala uste dauanak, sartu dedilla
bere fedea kalabazan.

Agustín ZUBIKARAI